

Araudizko otoitza eginda gero, lenagoko batzar agiria irakurri da ta aobatez onetsi.

Irigoyen jaunak adierazoten dau "Centro de Investigaciones Científicas"-ko Tobar jaunaren euskal-gaizko eskutitz bat eta pozik entzun da berau.

Urrengo Oleaga jaunak adierazoten dau Bizkai'ko Ekauta'ren "Junta de Cultura"-k euskereaz gerturiko ikastaroa bere lepora ezarri dabela eta beronen egitamaa agertuten dau, entzule guztiak aintzat artzen dabela.

Gero Azkue jaunak daragoyo irakurten aurreko batzarretan asiriko lan polita, batzarkideen oartxo batzuk arturik.

Geyagoko barik eta araudizko otoitzaz batzarra amaituten da.

* * *

Bilbao'n 1942'gko Zezeila'ren 27'an, Bizkai'ko Ekauta'ren etxean, Azkue, Irigoyen, Zamarripa, Urkijo ta Oleaga Euskaltzainak lenengoa maipuru dabela, batzen dira, il oneri dagokon Euskaltzaindi batzarra egiteko.

Asiera, araudizko otoitzaz emoten yako.

Aurreko batzarraren agiria irakurri da ta aobatez onetsi.

Azkue jaunak diardu aurreko batzarretan asiriko lana irakurten.

Eta beste barik araudizko otoitza eginaz amaituten da batzar au.

* * *

Donostia'n 1942'gko Epaila'ren 26'an, Gipuzkoa'ko Ekauta'ren jau-regian, Azkue, Urkijo, Irigaray ta Oleaga euskaltzainak, lenengoa maipuru dala, baturik, Euskaltzaindiak il oneri dagokon batzarra egiten dau.

Araudizko otoitzaz emoten jako asikerea.

Lenaurreko batzarraren agiria irakurri ta, ao batez onetsi da.

Urrengo aitatu da nor izan leiteken ildako euskaltzain Gerra jaunak itsi daben utsunea bete leikena. Gai au ondo aztertu ta gero, Ignacio Etxaide jauna, euskal-gaizko liburugile ospetsua, aukeratu da. Adierazo bekio bere izentatze au, kisa barri ori bere gain artu dagiala eskatuz.

Gero adierazoten da Bilbo'ko Erasketxe udaldarrak, Euskaltzaindia'ren izenean egin jakon eskariari erantzunaz, mila pesetako emoia egin dabela. Pozik artu da barri au ta eskarrak emotea erabagi da.

Víctor Gaubeka, Bermeo'ko irarlariak egindako idazki bat irakurri da; Euskaltzaindiarentzat egindako lanen batzuen ordain-saria eskatuten dau, bide batez gertuta daukazan eta oraindifo argitaratu barik dagozan lanen batzuen barri emoten dabela. Oraingoz zorrok ordainduteko dirurik eztagoala-ta, Euskaltzaindia'ren lanen argitaratuteko be oraingoz era egokia eztala-ta, geroagorako eskari orreri erantzutea itzi da.

Azkue jaunak Weltverkehrs Sprachen deritxon Alemania'ko aldi-rokoan Bähr euskaltzain urgazleak alemaneraz idatziriko euskal-gaizko lan polit bat erderara itzuli-ta irakurten dau. Oso pozik entzun da.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaituten da batzarra.

* * *

Bilbo'n 1942'gko Jorrraila'ren 24'an, Euskaltzaindia'ren etxean eta Azkue jauna maipuru dala, batzen dira Urkijo, Zamarripa ta Oleaga euskaltzainak, il oneri dagokon batzarra egiteko.

Batzar ori araudizko otoitzaz asten da.

Geró lenaurreko batzarraren agiria irakurrita ao batez onetsi da.